

## 1.1.2 GAIAREN LANKETA

### > Nor, nolakoa, zer zara zu?



#### - Nolakoa zara zu?

- Ni honelakoa naiz: ezaugarri fisikoak eta psikologikoak

#### Helburuak

- Hainbat adjetibo euskaraz ikastea.
- Adjetiboen esanahia ulertzea eta noiz erabili behar diren jakitea.
- Adjetiboak euskaraz erabiltzea.
- Ezaugarri fisikoak eta psikologikoak ezberdintzea.

#### Prozedura

- Umeei A eta B fitxak banatu.
- Denen artean irudiak aztertu eta ezagutzen ez dituzten adjetibo berriak zeintzuk diren esan.
- Hezitzaileak umeei ezaugarri fisikoen eta psikologikoen arteko aldea azaldu.
- Talde txikietan irudiak moztu eta dagokien koadroan itsatsi.
- Denen artean zuzendu.
- Ezaugarri fisiko edo psikologiko gehiago ezagutzen badituzte, idatzi. Lehendabizi, hezitzaileak arbelean, eta gero, umeei euren fitxetan.
- Euren hizkuntzetan adjetibo gehiago ezagutzen badituzte, hiztegian bilatu eta horiek ere idatzi.